**HERNANIKO UDALA BURUJABETZAREN INGURUAN BULTZATZEN ARI DEN HERRI-PROIEKTUAREN ESTRATEGIA EZARTZEKO ETA KOMUNIKAZIO BEHARRAK ASETZEKO AHOLKULARITZA ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIA ARAUTUKO DUEN KLAUSULA TEKNIKOEN PLEGUA**

## 1.- OBJEKTUA

Kontratuaren xedea da Hernani Burujaberen Plan Estrategikoaren komunikazio zerbitzua gauzatzea. Jarraian garatzen denaren arabera, adjudikazio-hartzaileak komunikazio-estrategia ezarri eta kanpo zein barne komunikazioa gauzatuko du.

## 2.- ZEREGINAK

Komunikazio zerbitzuaren zereginak honako bi multzo hauetan bana daitezke:

- 2.1.Estrategia, aholkularitza eta komunikazio plana
- 2.2. Kanpo eta barne komunikazioa

2.1. ESTRATEGIA, AHOLKULARITZA ETA KOMUNIKAZIO PLANA: baliabide publiko zein herritarren ongizateari begirako gobernantzaren baitan, komunikazio estrategiaz arduratu beharko da. Hori horrela, honako egiteko zehatzak aurreikusten dira:

1. Hernani Burujaberen Plan Estrategikoaren komunikazioa dinamizatzea eta Hernani Burujaberen Plan Estrategikoaren Komunikazio Plana aurrera eramatea. Hala, Komunikazioaren Kudeaketaren Urteko Plana osatu beharko du adjudikazio-hartzaileak, Hernani Burujaberen Plan Estrategikoaren parte diren eragile ekonomiko, sozial eta politikoekin batera.
2. Komunikazio planaren barnean aurrera eraman beharreko ekintzak eta bete beharreko urteko helburuak zehaztea.
3. Komunikaziorako protokoloen eskuliburuen jarraipena egitea eta beharrezkoak direnak sortzea; bertan, besteak beste, honako hauek aurreikusiko dira: Hernani Burujaberen Plan Estrategikoaren irudi korporatiboak, hizkuntza-irizpideak, genero-irizpideak, estiloa, komunikazio-gaitasuna, datuen babeserako jarraibideak...
4. Komunikazio eta informazio estrategiak diseinatu eta ezartzea (zenbait komunikabiderekin, herritarrekin, eragile sozialekin eta abarrekin harremanak izanez, eta tokiko estrategiak garatzeari arreta berezia eskainiz).
5. Komunikazio-planak jasotakoak Hernani Burujaberen Plan Estrategikoaren jardunean txertatzeko behar den informazioa zabaltzea. Eduki horiek errespetatzen direla zaindu eta horien garapenerako proposamenak egitea. Halaber, Hernani Burujaberen Plan Estrategikoaren baitan egiten diren komunikazio-ekintza ezberdinak kontuan izaten direla zaindu, zuzendu –beharko balitz– eta ardura hartzea.
6. Komunikazio estrategia koordinatzea; alegia, garatu beharreko estrategia guztiak bultzatzea, garatzea eta kontrolatzea: solaskide izatea teknikari, ordezkari politiko, eragile sozial eta ekonomikoekin.
7. Komunikazio-mahaia dinamizatzea: parte-hartzaileak zeintzuk izan behar diren zehaztu, eta komunikazio mahaiaren bileren maiztasuna ere bai, eta oro har, mahaiaren dinamizazioa (deialdia, gai-zerrenda, akta...).
8. Kanpora zein barrura begira interesekoak izan daitezkeen edukiak identifikatzea.

9. Hernani Burujaberen Plan Estrategikoaren partaideekin komunikazio ekintzak koordinatu eta irizpideak zehaztea.

2.2. KANPOKO ZEIN BARNEKO KOMUNIKAZIOA:

10. Komunikazio Planak dioenari jarraituz, Hernani Burujaberen Plan Estrategikoaren partaideekin koordinatu, informazioa jaso, landu eta, haiekin adostutako irizpideak (denbora, kopurua, tonua, kanala...) kontuan hartuta, euskarri desberdinetan komunikazioa gauzatzea (prentsa-oharrak, gutunak, erreportajeak...).

11. Hernani Burujaberen Plan Estrategikoaren webguneen edukiak kudeatzea; albiste, agenda eta informazioa prestatu eta jarraipena egitea.

12. Komunikazio-premia eta kanal berrien inguruko aholkularitza. Sare sozialek (Facebook, Youtube, Twiter, Instagram...) komunikaziorako eta partaidetzarako eskaintzen dituzten aukerak erabiltzeko aholkularitza ematea. Baita horien kudeaketa, presentzia aktiboa eta interakzioa bermatzea eta herritarrei erantzutea ere. Halaber, sare sozialen monitorizazioa eta jendearen erreakzioen entzute aktiboa bermatzea. Aldian behin ebaluatu eta estatistikak kontrolatzea.

13. Hedabideekiko harremanak kudeatzea: prentsaurrekoak zein ekitaldiak prestatzea, deitzea eta horien jarraipena egitea (deialdiak egitea, gidoia idaztea, komunikatuak, prentsa-oharrak, elkarrizketak edo hedabideei egindako txostenak idaztea...), eta komunikabideekin harremana izatea, tokikoekin bereziki eta informazioa helaraztea.

14. Hedabideetan (analogikoetan nahiz digitaletan) Hernani Burujaberen Plan Estrategikoari eta bere jardunari buruz plazaratzen dena behatu, landu eta komunikazio-arduradun tekniko-politikoari jakinaraztea, eta, hala badagokio, erantzunak planifikatzen laguntzea.

15. Herritarren parte-hartzearekin nahiz udal langile eta ordezkari politikoekin gauzatuko diren parte-hartze prozesuetan parte aktiboa izatea, eta haietatik erator daitezkeen komunikazio-premiak asetzea.

16. Krisi egoeretan komunikazioa kudeatzea.

17. Hernani Burujaberen Plan Estrategikoaren proiektuen eta ekintzen zabalkundeari begira, aholkua eman eta horien edukia eta diseinua egitea, euskarri analogikoan zein digitalean.

18. Hernani Burujaberen Plan Estrategikoari erantzuteko beharrezko diren euskarri grafiko zein ikus-entzunezkoak sortzea (bideoak, eskuorriak, kartelak, aldizkariak...).

19. 19/2013 Legeak (abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio publikoa eskuratzeko bideari eta Gobernu Onari buruzkoak) zein bestelako araudiek publizitate aktiboari buruz ezartzen dituzten edukiak moldatzea herritarrentzat ulerterrazak eta erakargarriak izan daitezen.

20. Irudi korporatiboa ikuskatzea eta hedatzea, eta, hala badagokio, zuzentze-neurriak proposatzea. Irudi hori sustatzeko eta herritarrengana hurbiltzeko estrategia garatzea.

21. Hernani Burujaberen Plan Estrategikoaren barne komunikazioaren ebaluazioa eta jarraipena egitea.

22. Hernani Burujaberen Plan Estrategikoaren barne buletina sortu eta zabaltzea.

23. Intranetaren garapena. Intraneta aztertu eta aplikatzea. Hernani Burujaberen Plan Estrategikoaren barruko jakinarazpenak, informazio fluxuak, parte-hartzea eta elkarlana sustatzeko Intranet-aren beharra aztertu eta horrela badagokio, garapena bideratzea; partaideen artean aurkeztu, formakuntza eskaini eta jarraipena egitea.

Komunikazio Planaren garapenak barne hartuko ditu mezuak konfiguratzea eta planteatzen diren helburuak eta ekintzak betetzeko beharrezkotzat jotzen diren komunikazio bideak dinamizatzea. Baliabide materialak, multimedia, prentsa, sare sozialak, webguneak, euskarri digitalak, inprimakiak, liburuxkak,

triptikoak, itsasgarriak, era guztietako euskarri fisikoak eta proposatutako estrategiak gauzatzeko beharrezkotzat jotzen diren guztiak garatuko dira.

Nolanahi ere, kanpainen produkzio fisikoaren kostua (inprimaketa, banaketak eta bestelako euskarriak) ez da kontuan hartuko balorazio ekonomikoan.

## 3.- KOORDINAZIOA ETA METODOLOGIA

Bere zereginak garatzean, adjudikazio-hartzaileak publiko nagusia herritarrak direla aintzat hartuko du, eta hala, hartara egokituko ditu edukiak eta idazteko estiloa.

Ildo horretan, adjudikazio-hartzaileak nahitaez erantzun beharko die kontratuaren xedearekin lotuta hirugarrenek egin ditzaketen erreklamazio eta kexei, aldez aurretik kontratuaren jarraipena egingo duen teknikari zein ordezkari politikoarekin koordinatuta.

Herritarren eskubideen harira, komunikazio zerbitzua gauzatzean bermatu beharko ditu herritarren zein langileen ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudi- eskubideak, bereziki adingabeen kasuan. Inolaz ere ezin izango dira erabili irudiak, argazkiak edo diseinuak erabiltzeagatik legezko erantzukizuna dakarten irudiak, argazkiak edo diseinuak.

Konfidentzialtasunari eta datu pertsonalen babesari dagokionean, adjudikazio-hartzaileak zerbitzuaren baitan ezagututako datu zein bestelako informazioa konfidentziala izango da, eta horien identitatea eta sekretua gorde beharko da. Soilik behar-beharrezkoak diren datu pertsonalak erabiliko ditu, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betez. Konfidentzialtasuna eta zerbitzuaren baitan tratatutako datu pertsonalen babesaren errespetua kontratuaren amaieratik haratago gorde beharko du adjudikazio-hartzaileak.

Komunikazio zerbitzuaren baitan sortutako eduki zein materialaren jabetzari dagokionean, Hernaniko Udalak beretzat gordetzen ditu, modu esklusiboan eta epe mugagabean, kontratua gauzatzean gara daitezkeen erreprodukzio, banaketa, komunikazio publiko eta eraldaketarako eskubideak. Hala, komunikazio lanetatik erator daitezkeen jabetza intelektualeko eta "copyright" eskubide guztiak Hernaniko Udalarenak bakarrik izango dira.

Zerbitzuaren jarraipenari dagokionean, Udalak hartara izendatutako teknikari zein ordezkari politiko baten pean egingo da lan, elkarren arteko komunikazioa etengabekoa izanik. Jarraipena egingo duenak hala eskatuz gero, hilabeteko epean egindako lanen zerrenda eskatu ahal izango da.

Egin beharreko lanen nolakotasuna eta Udalari aplikagarri zaizkion arauek ezarritako mugak kontuan izanda, adjudikazio-hartzaileak ez du erabateko esklusibotasun-eskubiderik izango zeregin horiek egiteko; beraz, beharrezkoa izanez gero, Udalak antzeko zerbitzuak (partaidetza prozesuak, kanpaina konkretuak, produkzio jakin bat...) eskatu ahal izango dizkie beste erakunde edo enpresa batzuei, betiere zehaztutako dedikazioaren baitan koka ezin badira.

## 4.- GIZA BALIABIDEAK

Antolamendua eta baliabide materialei dagokienean, adjudikazio-hartzaileak zerbitzua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren elementu zein materialak izango ditu (ordenagailua, edizio-lanak egiteko programa informatikoak...). Adjudikazio-hartzailea arduratuko da kontratuaren esku jar daitezkeen elementu informatikoak, sareak, materialak edo beste edozein udal-azpiegitura behar bezala erabiltzeaz.

Giza baliabideei dagokienean, enpresak behar adina langile gaitu izan beharko ditu kontratu hau gauzatzeko egin behar diren lanetarako. Gutxienez lantalde hau izan beharko du:

- Komunikazio estrategiaren aholkularia eta sare sozialen kudeatzailea: Komunikazio Zientzietako gradua, Marketing eta Publizitate gradua edo baliokidea. Hizkuntza-irizpideei dagokionez, C1 edo baliokidea izan behar du.

- Ikusentzunezko lanen arduraduna: Ikusentzunezko Komunikazioan, zinemagintzan edo bideoen edizioan goi-mailako ikasketak (gradua edo baliokidea). C1 edo baliokidea izan behar du.
- Diseinatzaile grafikoa: Diseinu Grafikoko goi-mailako teknikaria edo baliokidea. C1 edo baliokidea izan behar du.

Dedikazioari dagokionean, deskribatutako zerbitzua emateko astean 20 orduko dedikazioa izango du adjudikazio-hartzaileak.

Lan-talde horretan gutxienez emakumezko batek egon behar du.

Giza talde horrek behar bezala koordinatuta egingo du lan, eman beharreko zerbitzuak garaiz eta behar bezala gauzatzeko. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ondo menperatu beharko dituzte, ahoz eta idatziz.